



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko azaroaren 21a

121. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, 0tik 3 urtera bitarteko haur hezkuntzaren arloko neurriei buruzkoa, Nafarroako udalen legegintza-ekimenak aurkeztua (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Berako preso Jose Anjel Altzugurenen heriotza salatzen du. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazpen eta iritzi askatasunaren alde egiten du, oinarritzko eskubidea izateagatik. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua, Aralar, Eusko Alkartasuna eta Askotarikoa parlamentu-taldeek aurkeztu dute (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, bidezainen etxeak izenekoei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egin (8. or.).

—Galdera, Mendillorri lehene hezkuntza amaitzen duten ikasleei buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (8. or.).

—Galdera, Xabier 2006-Kultura unibertsaleko topaketa izeneko programan euskarari emanen zaion tratamenduari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (9. or.).

—Galdera, errepide sarean gertatzen diren istripuei buruzkoa, foru parlamentari Helena Santesteban Guelbenzu andreak egin (10. or.).

—Galdera, hegoaldean ur gezatan bizi den *margaritifera auricularia* izeneko bi kuskudun moluskuari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (10. or.).

—Galdera, “Urbasako Jauregia” delakoaren balizko eraipenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

—Galdera, farmaziako teknikari tituluari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

- Galdera, langile autonomoaren estatutuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, “ADAPNA, Adaptabilidad de Navarra” izeneko proiektuaren helburuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, oihan-ustiategietarako dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Etxalar eta Zugarramurdi lotzen dituen errepidearen mantentze-lanei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, hainbat eskualdetan telebista seinaleak hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako plan zuzendaria prestatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenak publikoki eskuratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Milagron ikastetxe bat eraikitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Antox Elkarteari fakturak ordaintzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, lehen osasun laguntzako eta osasun laguntza espezializatuko farmazia gastuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, 0tik 3 urtera bitarteko haurren ikasgelak finantzatzeko moduluari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, eszedentzia dela-eta eskatu diren laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, tokiko osasun kontsultategiak egokitzeke dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Otik 3 urtera bitarteko haur hezkuntzaren arloko neurriei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1 artikulua aitortzen duen Nafarroako udalen legegintza-ekimena erabiliz eta martxoaren 25eko 4/1985 Foru Legearen babesean, Otik 3 urtera bitarteko haur hezkuntzaren arloko neurriei buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu zen Nafarroako Parlamentuan, Nafarroako udalen legegintza-ekimenak aurkeztu ere, zeinaren burua Javier Ibáñez Iborra jauna baita.

Legebiltzarreko zerbitzu juridikoen tramitera onartzeari buruz emandako txostena ikusita, aipatu foru legearen 5. eta 7. artikuluek diotena betez eta Erregelamenduaren 146. artikulua xedatutakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Otik 3 urtera bitarteko haur hezkuntzaren arloko neurriei buruzko Foru Lege proposamena tramitera onartzea. Proposamena Javier Ibáñez Iborra jauna buru duen Nafarroako udalen legegintza-ekimenak aurkeztu du.

2. Erabaki hau eta aipatu proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2005eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Otik 3 urtera bitarteko haur hezkuntzaren arloko neurriei buruzko Foru Lege proposamena.

ZIOEN AZALPENA

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren 7. artikuluan xedatzen da haur hezkuntza, alegia, sei urteko adinera bitartekoa, borondatezkoa izanen dela eta administrazio publikoek berrmatuko dutela nahiko toki izatea, eskatzen duten guztiek eskolaratzeko aukera izan dezaten.

Hezkuntzaren kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoak 10. artikuluan ezartzen duenez, "eskolaurreko hezkuntzaren helburua da hezkuntza eta laguntza ematea lehen haurtzaroan, hiru urte bitarteko haurrei emanen zaie eta borondatezkoa izanen da gurasoentzat. Administrazio eskudunek erantzuna emanen die familietan dauden beharrei eta eskariari aurre egiteko behar adina toki eskaintzen dela koordinatuko dute."

Nafarroako Foru Komunitateko herri askotan ez dago ikastetxerik Otik 3 urtera bitarteko haur hezkuntza eskaini ahal izateko; beste batzuetan, titulartasun pribatuko ikastetxeak bakarrik daude eta, azkenik, beste herri batzuetan titulartasun publikoko ikastetxeak daude, baina udalentsat oso zaila da halako ikastetxeak sortu eta sostengatzea. Edonola ere, postuen eskaintza ez da nahikoa dagoen eskaerari erantzuteko, eta ikasturtero argi geratzen da Nafarroako familia asko ikaspostu publikorik gabe geratzen direla haien seme-alabentzat eta ezin dutela titulartasun pribatuko ikaspostu bat ordaindu.

Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloa eskaintzen duten ikastetxeek eginkizun garrantzitsua betetzen dute gizartean: desberdintasunak konpentsatzen laguntzen dute, emakumeei lan merkatuan sartzeko aukera hartzea errazten diete eta

gurasoei familia eta lana bateratzea eta seme-alaben heziketa partekatzea ahalbidetzen diete.

1. artikulua. Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza Departamentuaren bitartez, hezkuntzaren arloan dagozkion eskumenak erabiliz, eskaerari erantzuteko adina ikaspostu izatea bermatuko du Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloko ikastetxeetan.

2. artikulua. Foru Komunitateko administrazioaren titulartasunekoak diren Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloko ikastetxeak eta udalen titulartasunekoak direnak sare bakar batean sartuko dira. Hezkuntza Departamentuari dagokio sare hori kudeatzea.

3. artikulua. 2006. urtetik aurrera, Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloko ikastetxe publikoak finantzatzeko sistema bat ezarriko da Nafarroako aurrekontu orokorretan, ikastetxe horien finantzaketa egokia bermatuko duena. Udalek ikastetxe horien sostengurako laguntza emanen dute, lehen hezkuntzako etapetan egiten duten baldintza berdintsuetan.

4. artikulua. Nafarroako Gobernuak prezio eta laguntza sistema bat ezarriko du, familia guztiei eta, bereziki, baliabide ekonomiko gutxien dituztenei, Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloko postuak eskuratzen ahalbidetzeko.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Nafarroako Gobernuak foru lege honetan xedaturikoa aplikatzeko beharrezkoak diren hitzarmenak adostuko ditu Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloko ikastetxeen eta 3 urterainoko haurrentzako gaur egungo laguntza zentron titularrak diren udalekin.

Bigarrena. Urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloa garatzeko plan bat onetsiko du, foru lege honetan xedaturikoari jarraikiz. Plan horren arabera, Otik 3 urtera bitarteko zikloko laguntza ematen duten ikastetxe eta laguntza zentro guztiak hezkuntza sare berean sartuko dira pixkana, bai Hezkuntza Departamentuaren menpekoak, bai Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren menpekoak. Halaber, lurralde oreka egokia hartuko da kontuan sare horretako ikastetxeen banaketa ezar-tzerakoan.

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuak behar diren erregelamenduak emanen ditu foru lege honek ezarritakoak aplikatu eta garatzeko.

Bigarrena. Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean, eragin ekonomikoa duten ekin-tzak izan ezik; horiek 2006ko urtarrilaren 1ean hartuko dute indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Berako preso Jose Anjel Alzugurenen heriotza salatzen du.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Parlamentuak Berako preso Jose Anjel Alzugurenen heriotza salatzen du."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko azaroaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Aralar talde parlamentarioak, Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren aitzinean, Ganbarako Erregelamenduko 192 eta hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, ondoko mozioa aurkezten du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

"Jose Anjel Alzuguren jauna, Berako bizilaguna, 2005eko urriaren 22an atxilotu zuen Guardia Zibilak, bat-batean, zigorra osorik betearazteko. Iruñean espetxean sartu, eta Zaragozako pasatu ondoren Soriako espetxera iritsi zen. Anaiaren bisita jaso zuen presoak. Tebista erosteko dirua eskatu omen zion senitartekoari. Beste preso batek bertan hainbat liburu utzi zizkiola kontatu zion. Azaroaren 1ean hilik aurkitu zuten, espetxetik senideei emandako datuen arabera, maindire batzuekin urkaturik aurkitu zuten bere ziegan.

Depresioak jota zegoen Alzuguren jauna, 39 urteko preso. Psikologo batek eta psikiatra batek artatzen zuten. Botikak hartzen zituen. Urriaren 22an atxilotu zuten, zigorra amaitzeko. Bost urte eta zortzi hilabeteko zigorra zuen, ETAr laguntze-

agatik. Lehen aldiz atxilotu zutenean, torturatu egin zutela salatu zuen, eta horrek eta espetxealdiak ondorioak utzi zizkion, Askatasuna erakundearen arabera. Hiru urte eta erdi eginak zituen lehendik espetxean. Urtebete eskas zeraman kalean, bere abokatuak aurkeztu zuen helegiteari noiz erantzunen zioten zain. Erantzuna jaso ordez, zuzenean atxilotuta eraman zuten Alzuguren jauna urriaren 22an, Imanol Larrañagarekin eta Ainara Fresnedarekin batera. Ondorioz, medikuen aldetik jasotzen zuen arreta gabe gelditu zen Alzuguren jauna.

Soriako kartzelako zaindariak hartu behar zituen pilulak eman zizkioten Alzuguren jaunari ailegatu zenetik, ostiraletik; baina zentroko medikuak ez zuen preso ikusi, familiaren abokatu Amaia Izkok azpimarratu zuenez. Azaroaren 1ean 08:00etan aurkitu zuten espetxeko zaindariak Alzuguren jaunaren gorpua, presoak zenbatzen hasi zirenean. 08:45 aldera jaso zuen familiak gertatu zenaren berri eman zion deia. Presoaren arreba Soriara joan zen abokatuarekin, anaiaren bila. Ziegatik ospitalera eraman zuten Alzugurenen gorpua, autopsia egitera."

Sakabanaketaren eraginez bertze hildako bat dugu Euskal Herrian, eta sufrimendua areagotzea bertzerik ez dakar honek. Euskal presoen giza eskubideak urratzen ditu, eta haien senitartekoei ere inork merezi ez duen zigorra eransten die. Sakabanaketa politikak Espainiako eta Frantziako gobernuen aldetik zuzendutako mendekuari baino ez dio erantzuten, eta horrek ez duela bizikidetzak baketsurako biderik ematen agertu nahi du Nafarroako Parlamentuak.

Nafarroako bizilaguna den Jose Anjel Alzuguren jaunaren heriotza dela eta, Nafarroako Parlamentuak honako proposamena egiten du:

Akordio proposamena

1.- Nafarroako Parlamentuak Jose Anjel Alzuguren preso beratarren heriotza salatu, eta dispertsioarekin behin betirako bukatzea eskatzen dio Espainiako Gobernuari.

2.- Nafarroako Parlamentuak bere dolumina agertu nahi die Jose Anjel Alzuguren jaunaren senitarteko zein lagunei.

3.- Sakabanaketarekin behin betirako bukatze-ko tenorea dela gogorarazi nahi du Nafarroako

Parlamentuak, bake eta normalizazio bidean ezinbertzeko neurria baita hau.

4.- Nafarroan eta Euskal Herrian normalizazioa eta bakea lortzeko konpromezu irmoa agertzen du Nafarroako Parlamentuak, eta giza eskubide guzti-ekiko errespetua eskatzen du.

Iruñean, 2005eko azaroan 4an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazpen eta iritzi askatasunaren alde egiten du, oinarrizko eskubidea izateagatik.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA, ARALAR, EUSKO ALKARTASUNA ETA ASKOTARIKOA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua, Aralar, Eusko Alkartasuna eta Askotarikoa parlamentu-taldeen ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Parlamentuak adierazpen eta iritzi askatasunaren alde egiten du, oinarrizko eskubidea izateagatik".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko azaroaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahal-ko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen dugun legebiltzar taldeok, Legebiltzarraren Araudiak adierazitakoari jarraituz, Euskaldunon Egunkariaren aurkako prozesuari buruzko legez besteko proposamen hau aurkezteko ohorea dugu, Osoko Bilkurak presazko prozeduraz eztabaida dezan.

Zioak:

2003ko otsailaren 20an, Auzitegi Nazionalako epaile batek Euskaldunon Egunkaria kazeta –sasoi hartan euskaraz argitaratzen zen egunero-ko bakarra– kautelazko neurri baten bitartez ixtea erabaki zuen. Neurri horrekin hasi zen prozedura

penalean hemeretzi lagunari egotzi eta behin-behinean espetxeratu ere egin zituzten. Horietatik zazpi oraindik auziperaturik daude gaur egun.

Prozedura hasi zenetik urte bi eta erdi joan dira, baina, gaur egun, ezerk ez du bere sasoi hartu ziren erabaki judizial gogor haiek oinarritzen: ideologia terrorista hedatzen lagundu izaneko akusazioa espekulazio hutsa baino ez da. Askatasun-gabetzea, kautelazko neurri gisa, bereziki sendoak diren oinarriekin baino ez daiteke har ordenamendu politikoaren eta bake sozialaren oinarri nagusizat pertsonaren garapen askea duten erregimen politikoetan. Hedabide bat ixteak, bestetik, demokraziaren oinarrietako bat den adierazpen eta informazio-askatasuna kolokan jartzea dakar.

Askatasun-gabetzea garrantzi bereziko neurria da nortasunaren garapen askea ordena politikoaren eta bake sozialaren oinarritzat jotzen duen edozein erregimen politikotan. Ondorioz, kautelazko neurri gisa har daiteke soilik, betiere delitua leporatzeko funtsak bereziki sendoak baldin badira. Bestalde, komunikabide bat ixteak demokraziaren oinarri nagusietariko bat kolokan jartzen du: adierazpen eta informazio askatasuna, hain zuzen ere.

ETA erakundeak giza eskubideen kontra egini-ko erasoak gaitzetsi ondoren, Amnistia Internacional erakundeak hau ere adierazi zuen: "Egunkari bat ixtea eta haren produkzioan diharduten pertsonak atxilotzea ekintza larriak dira, adierazpen-askatasuna den oinarrizko eskubidean kalteko ondorio nabarmenak dutenak. Horregatik, egin-

go den ikerketa judizialak berehalakoa eta sakona izan behar du, derrigor”

Baldintza bi horietako bata ere ez da bete, nahiz eta prozesatzeko autoaren kontrako apelazio-errekurtsoaren baitako ahozko ikustaldia hilaren 18an egingo den.

Leporatzeko oinarri sendo eta zehatzik gabe eta prozeduraren luzapenari, orain testuinguru berri bat gehitzen zaio, besteak beste, Estatuko Gobernuan alderdi politiko berri bat egotea; era berean, ETA-k hogeita bederatzik hilabetetan atentatu hilkorrik eragin ez izana eta Diputatuen Kongresuan, Talde Popularrak soilik kontra eginik, ondorengoa dion ebazpena onartu izana: “bortxakeriaren amaiera elkarrizketatu baterako baldintza egokiak ematen badira, beronen amaiera emateko borondate argian oinarritua eta honen al de egiteko zalantzarik gabeko jarreratan oinarritua, Gobernuak estatu eta bortxakeriarekin amaitu nahi duten indarrekin elkarrizketa prozesu bat sustatu eta babestuko du, une oro, eztabaida politikoak herri borondatearen ordezkari legitimoen bidez konpon daitekeenaren printzipio demokratikoa errespetatuz”

Kontestu berri hau ez da oharkabean pasa Estatuko Fiskal Nagusiarentzat, urte judizialaren haseran hau aipatu zuelarik, ezta gobernuan dagoen alderdiarentzat, lider batzuk egin dituzten adierazpenak medio, “mugimendu” eta “aukeraz” eta “saiatu” beharraz hitzeginez. Nafarroako Legebiltzarreko legebiltzar taldeok, araudiak aplikatzera

doazen uneko errealitatearen arabera interpretatu behar direla pentsatzen dugu.

Botere judizialaren independentzia auzitan ipini barik ere, esan beharra dago Euskaldunon Egunkariaren kontra prozedura penala irekitzekoan Alderdi Popularraren Gobernuaren bulkada izan zela. Oraingo testuingurua bestelakoa da, eta botere judizialari dagokio, bere independentziaren baitan, Legea bulkada politiko barik aplikatzea.

Hori guztia dela eta, mozio hau aurkezten dugu:

1. Legebiltzar honek adierazpen- eta informazio-askatasuna defendatzen ditu, oinarritzko eskubideak baitira, gainerako giza eskubide guztien errespetua ere defendatzen duen legez.

2. Uste dugu ez dagoela Euskaldunon Egunkariaren kontra irekiriko prozedurari eusteko oinarri garbi, zehatz ezta sendorik.

3. Uste dugu, baita halaxe adierazi ere, kausa eta prozedura behin betiko artxibatzea prozedura judizial batean inoiz eman beharko ez zitekeen bultzada politiko bat zuzentzeko eta Euskal Herriko bakegintza eta normalizazio politikoan aurrera egiteko laguntza handikoa litzatekeela.

Premiaren justifikazioa: Epaiketa hilaren 18an hasiko delako.

Iruña, 2005eko azaroaren 10ean

Foru parlamentariak: José Miguel Nuin Moreno, Txentxo Jiménez Hervas, Maiorga Ramirez Erro eta José Luis Etxegarai Andueza

F saila:
GALDERAK

Galdera, bidezainen etxeak izenekoei buruzkoa.*FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko azaroaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, bidezainen etxeak izenekoei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua

eta hurrengoan babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzuteko:

Nafarroako bidezainen etxeak direla-eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Nafarroako Gobernuak zenbatuta al ditu Nafarroan dauden bidezainen etxeak? Etxe bakoitzaren ondoko xehetasunak jakin nahi ditut: herria, tokia, egoera, okupazio maila, egitura eta metro koadro kopurua.

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik etxe horiek kasuan kasuko udalari lagatzeko?

Zertarako erabiliko ditu Gobernuak etxe horiek?

Iruñean, 2005eko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Mendillorri lehen hezkuntza amaitzen duten ikasleei buruzkoa.*FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko azaroaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, Mendillorri lehen hezkuntza amaitzen duten ikasleei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Gaur egun Mendillorriko ikastetxean lehen hezkuntza amaitzen duten ikasleei buruzko galderak.

– Zer gertatuko da aurtien Mendillorriko ikastetxean lehen hezkuntzako seigarren maila amaituko duten neska-mutilekin? (150 dira, gutxi gorabe-

hera). Kontuan hartuta Iturramako ikastetxea (D eredu) eta Gurutze Plazakoa (A eta G ereduak) beterik daudela, zer ikastetxeetara bidaliko dituzte ikasle horiek?

– Zergatik ez da bilatzen haur horiek kokatzeko ikastetxe bat Mendillorriko institutua amaitu bitartean? Ezinezkoa al da Mendillorriko institutua administrazio eran sortzea (irakasleen klaustroa, gurasoen elkarte, eskola kontseilua) beste ikastetxe batean eta matrikula Mendillorriin egitea? Ziur badirela hutsik dauden eta horretarako erabil daitezkeen ikastetxeak.

– Azter al daiteke haurrak berriro biltzeko aukera? 2006, 2007 eta 2008. urteetan eta aurrekoetan Mendillorriko haurrek beste ikastetxe batzuetara joan behar izan dute. Haur horiek izanen al dute Mendillorrira itzultzeko aukera institutua funtzionamenduan jartzen denean? Mendillorriko haurrek Mutiloan hasi zituzten ikasketak, haien auzoan ikastetxerik ez zegoelako; ondoren, aldazio eta garaien artean hazi dira, obrak eta ikastetxearen handitzeko lanak zirela eta. Ez al litzateke hori kontuan hartu behar?

Iruñean, 2005eko azaroaren 9an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Xabier 2006-Kultura unibertsaleko topaketa izeneko programan euskarari emanen zaion tratamenduari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko azaroaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, Xabier 2006-Kultura unibertsaleko topaketa izeneko programan euskarari emanen zaion tratamenduari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregulamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer tratamendu emanen zaio euskarari Xabier 2006-Kultura unibertsaleko topaketa izeneko programan, Nafarroako berezko hizkuntza den alde-tik? (Publizitatea, ekitaldi instituzionalak, argitalpenak eta abar).

Iruñean, 2005eko azaroaren 9an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, errepide sarean gertatzen diren istripuei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA SANTESTEBAN GUEL BENZU ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko azaroaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Santesteban Guelbenzu andreak egindako galdera, errepide sarean gertatzen diren istripuei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Santesteban Guelbenzuek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua-

ren eta hurrengoaren babesean, ondoko ahozko galdera aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

– Zenbat istripu gertatu dira azken hiru urteotan N-121-A errepidean eta zein da horien balantzea?

– Nafarroako Gobernuak ba al du informazio estatistikorik errepide horretako istripu kopurua Nafarroako errepideen sarekoarekin alderatu ahal izateko?

– Zein dira departamentuak esku artean dituen datuak errepide horretan ibiltzen diren ibilgailu kopuru eta motari buruz?

Iruñean, 2005eko azaroaren 9an

Foru parlamentaria: Helena Santesteban Guelbenzu

Galdera, hegoaldean ur gezatan bizi den *margaritifera auricularia* izeneko bi kuskudun moluskuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko azaroaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, hegoaldean ur gezatan bizi den *margaritifera auricularia* izeneko bi kuskudun moluskuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregela-

menduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Hegoaldean ur gezatan bizi den *margaritifera auricularia* izeneko bi kuskudun moluskuari buruzko galdera.

Ingurumen Departamentuak ba al du planik Nafarroako ibaietatik desagertzen ari den molusku berezi hori kontrolatu, ikuskatu eta zaintzeko?

Iruñean, 2005eko azaroaren 10ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, “Urbasako Jauregia” delakoaren balizko eraispenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak “Urbasako Jauregia” delakoaren balizko eraispenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko maiatzaren 9ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko eledunak galdera egin du Zunbelzko Benta eta Urbasako Jauregia eraisteari buruz. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

2005ean, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Nafarroako oihan ondareko “Zunbeltz” finkan, Deierriko udalerrian, zeuden eraikinak eraitsi zituen.

Eraikinak oso hondaturik zeudenez noiznahi behera eror zitezkeen, eta instalazioak edonor sartzeko moduan daudela kontuan hartuta (errepidearen ondo-ondoan), pertsonen segurtasunerako arrisku larria zegoen. Horixe izan zen arrazoi nagusia departamentu honek eraisteko erabakia hartzeko, eta horri gehitu behar zaio eraikinak ez zirela deusetarako erabiltzen.

Eraispenak Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren aginduzko txostena izan du, errepideei buruzko araudiari dagokionez, eta Deierriko Udalak emandako obra lizentzia. Halaber, kontsulta egin zitzaion Vianako Printzea Erakundeari, eta honek adierazi zuen eraitsi beharreko eraikinek ez zutela inolako interesik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 25ean

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak galdera egin du Urbasako Jauregiari buruz. Hona hemen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Urbasako Jauregiaren izenarekin ezaguna den eraikina ez da eraitsiko.

Eraitsi behar dena da jauregi horren ondoan dagoen biltegi bat, oso hondaturik dagoelako. Kultura eta Turismo Departamentuko teknikariek komenigarri iritzi diote eraisteari arriskuak saihesteko, biltegiaren eta jauregiaren artean tarte bat dagoelako, eta abeltzainak bertatik iragaten dira, bidetako erabiltzen dute alegia.

Eraisteko proiektua amaitu eta obra lizentzia lortu bitartean pasabidea itxi egin da, eta arriskuaz ohartarazi.

Jauregiaren etorkizunari dagokionez, Urbasako natur parkeko patronatua eraikinari zer erabilera eman aztertzen ari da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 25ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria, Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, farmaziako teknikari tituluari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak farmaziako teknikari tituluari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko maiatzaren 16ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko ekainaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel Izu Belloso jaunak galdera egin du Nafarroako Osasun Zerbitzuak farmaziako teknikari tituluari

baliorik ez aitortzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ezin du farmaziako teknikaririk kontratatu, lanpostu hori ez dagoelako aurreikusirik 11/1992 Foru Legearen eranskinetan.

Osasun Departamentuak ez du pentsatu epe laburrean legearen inolako aldaketarik egitea arlo honetan. Baina egitekotan ospitaleek zehaztuko lukete zein diren profesional horien beharrak eta haiek kontratatuko lituzkete langileak, beharrezkoak izanez gero.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko ekainaren 2an

Osasun kontseilaria, María Kutz Peironcely

Galdera, langile autonomoaren estatutuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak langile autonomoaren estatutuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko maiatzaren 9ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko ekainaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak galdera egin du langile autonomoaren estatutuari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna.

Gai horri buruz, badakigu legegintzako ekimen hauek izan direla:

– Kongresuko parlamentu-taldeen lege proposamenak:

- Ekonomia eta Gizarte Kontseilua eratzen duen ekainaren 17ko 21/1991 Legearen 2. artikulua aldatzeko lege proposamena, hirugarren multzoari langile autonomoen ordezkari izanazko.

- Langile autonomoen egoera araubide orokorrean kotizatzen duten langileen egoerarekin parekatzeko lege proposamena.

- Langile autonomoen betebeharrak eta eskubideak araubide orokorrean kotizatzen duten langileen parekatzeko lege proposamena.

– Senatuko lege proposamena:

- Ekonomia eta Gizarte Kontseilua eratzen duen ekainaren 17ko 21/1991 Legearen 2. artikulua aldatzeko lege proposamena, hirugarren multzoari langile autonomoen ordezkari izanazko.

Bestalde, datozen asteetan aukera izanen dut Langile Autonomoen Federazio Nazionalaren ordezkari batzuekin bilera bat egiteko. Bilera horretan aurreikusirik dago federazioak langile autonomoen estatuturako proposamena ekartzea, 2004an abiatu zen Adituen Batzordeak egina.

Jasotako informazioa ikusirik, eta lege tramitearen azken emaitza, Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurren-

goetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 26an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, “ADAPNA, Adaptabilidad de Navarra” izeneko proiektuaren helburuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak “ADAPNA, Adaptabilidad de Navarra” izeneko proiektuaren helburuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko maiatzaren 9ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko ekainaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak galdera egin du “ADAPNA, Adaptabilidad de Navarra” izeneko proiektuaren helburuei buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna.

ADAPNA proiektuak EQUAL ekimenaren 3. gaien ardatza du jomuga, enpresen eta langileen moldagarritasuna.

Proiektuaren xedea da Nafarroako enpresa txiki eta ertainei beren produktuekin edo bezeroekin duten menpekotasunak, bai eta sendotze eta modernizatze faltak ere eragiten dien ahuleziari kontra egitea pertsona guztien gaitasunak, berrikuntza eta kudeaketa hobetuz, hauxe lortzeko:

– Enplegua sendotzea lurraldean, bertatik alde egiteko arriskuari aurrea hartuta.

– Enpresen lehiakortasuna, hazkundera eta enpresa ehunaren sendotzea hobetzea, enplegua sortzen eta egokitzen lagunduz.

– Lanbide kualifikazio eta ezaugarri multzo berriak garatzea, enplegu kopurua eta kalitatea laguntzeko, bereziki arriskupeko giza taldeetan.

– Enpresa txiki eta ertainen arteko lankidetzaren sareak sortzearen alde egitea lehiakortasun abantailak eskuratzeko.

1. galdera

Proiektuaren helburuak hauexek dira:

- Bai gizonek bai emakumeek kudeatutako enpresa txiki eta mikroenpresetako kudeaketa-sistemak hobetzea, horrela enpresa-ahuleziaren eta, beraz, enplegu-ahuleziaren aurka borrokatzeko.

- Hala berrikuntza nola ezagutzaren kudeaketa indartzea, horretarako pertsona guztien, gizonezkoen nahiz emakumezkoen, gaitasunak garatuz, lehiakortasuna eta kalitateko enplegua hobetze aldera.

- Pertsonak, gizonezkoek nahiz emakumezkoek, lan-merkatuak eskatzen dituen baldintza eta trebetasun berrietara moldatzeko dituzten gaitasunak garatu eta kudeatzea.

- Laneko malgutasun eta antolaketa sistemak hobetzea, horrela teknologia, antolaketa, ekonomia, merkatu eta gizartearen arloetako errealitate berrietara moldatu ahal izateko.

- Hala gizonezkoek nola emakumezkoek gidatutako enpresa txiki eta ertainen artean hartu-emanak egiteko eta lankidetzan aritzeko formulekin saiakuntzak egitea, horrela haien jardueretan ikasi, berritu eta haztea lortzeko, eta haien arteko sinergiak ezarri ahal izateko.

2. galdera.

Proiektuaren iraupena hiru urtekoa izanen dela aurreikusten da (2005-2007).

3. galdera.

Honako talde hauei zuzentzen zaie:

- Enpresa txikiak, lehentasunez zerbitzuen sektorekoak, batez ere gizarte-ekonomiako enpresak eta emakumeen zuzendaritzapeko enpresak.
- Enpresa horietan lan egiten duten emakume gazte kualifikatuak, zuzendaritza-eginkizunetarako trebetasunak dituztenak.
- Enpresa berrien sustatzaileak, gizonezkoak nahiz emakumezkoak, batez ere zerbitzuen sektorekoak eta enplegu-sorgune berrietakoak.
- Hazkuntza-fasean dauden enpresa txikiak, batez ere emakumeek sorturikoak, nagusiki zerbitzuen sektorekoak, gizarte-ekonomiako enpresa bihurtzeko modua eskaintzen dutenak, horrela beren langileak leialtzeko.
- Enpresa txiki eta ertainak, lana antolatzeko sistema zaharkituak eta malgutasun oso txikiak dituzten industri sektoreetakoak batez ere.
- Produkzio-arloetakoak diren edo zuzeneko lanetan gisa diharduten gizonezko nahiz emakumezko langileak.
- Industri sektoreko enpresak eta enpresa txiki eta ertainetako gizonezko nahiz emakumezko langileak, batez ere enplegu zentro berezietakoak eta hazkuntza-arazoak dituzten enpresetakoak.
- Nafarroako Erribera aldeko industri eta zerbitzu sektoreetako enpresa txikiak, haietako asko famili izaerakoak, kudeaketa-arloko prestakuntza eskasa dutenak; arreta bereziz hartuko dira aintzat emakumezkoek zuzendari gisa dihardutenekoak.
- Nafarroako nekazaritza eta abeltzaintzako sektoreko gizonezko eta emakumezko enpresaburuak.
- Enpresa-mota: enpresa txikia, zeinean titularrak gizonezko bat izan ohi den, eta, batzuetan, emakumea arduratzen den kudeaketaz. Enpresak kontratu finkodun pertsona bat du, bai eta aldi baterako gizonezko eta emakumezko langileak ere, normalki etorkinak, kanpaina bakoitzerako.
- Erakunde sindikalak eta enpresaburuenak. CEN, UGT, CCOO eta administrazio publikoko arduradunak.
- Emakumezko enpresaburu eta/edo zuzendariak, edo enpresa txiki eta ertainetan zuzendaritza-eginkizunetan aritzeko trebetasuna dutenak, eta kualifikazio-maila altua dutenak.
- Industri sektore tradizional eta helduetako enpresa txiki eta ertainetako gizonezko eta emakumezko langileak, 45 urtez gorako adina, lan-erperientzia luzea eta beren ogibide eta lanbideari buruzko jakintza handia dituztenak.
- Etorkinak, beren sorterrietan lanbide-kualifikazioa daukatenak.
- Nafarroan dauden enpresetako eta jarduerazentrotako gizonezko nahiz emakumezko ordezkari sindikalak.
- Nafarroako Goi Erribera, Erribera Behere eta Erdialdeko zenbait enpresa txiki eta ertainetako eta jarduerazentrotako gizonezko nahiz emakumezko langileak.
- Nafarroako Erriberako eta Iruña aldeko gizonezko nahiz emakumezko langileak.

4. galdera.

Proiektuaren guztizko aurrekontua 2.399.519,62koa da. Horren % 50, Europako Gizarte Funtsetik (UAFSE) dator, eta beste % 50 Nafarroako Gobernuak finantzatzen du, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bitartez.

5. galdera.

Proiektu honek duen oinarrizko helburua, lortzea espero dena, hau da: bermatzea Nafarroan badaudela enpresak, egiazki ingurumenaren eskakizunen arabera kudeaketa-sistemak dituztenak eta lehiakortasun-maila hobekia lortu dituztenak, pertsona guztien gaitasunak baliatuz eta ezagutzaren kudeaketa egokian nahiz berrikuntzan oinarrituz.

Proiektuko oroit-idazkian ikusten denez, zeinean antolatzen eta zehazten baitira gauzatu beharreko ekintzak hain zuzen, pertsonak eta onuradunak identifikatzen dira bakoitzerako; hori horrela, honako aurreikuspen hau eskaintzen dute, taldekatuz gero:

	Pertsona onuradunak			Enpresa onuradunak	Enpresa diagnostikatuak
	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Guztira	288	20
GUZTIRA	551	788	1.339	288	20

Ezertan galarazi gabe ezen, europar proiektuen idiosinkrasia bera dela-eta, pertsona onuradunei eginiko ohitura, jokamolde, ezagutza eta emaitzen transferentzia askoz ere handiagoa izatea zuzenean ukitutakoei eginikoa baino (Nafarroako gizartearen kasua, alderdi transnazionalarena, europar esparruarena, esperimentaziotik eratorriarena...).

Galderaren bigarren zatiri dagokionez, ezagutarazteari alegia, plan bat ezarriko da, proiektua ezagutarazteko jarduera aurreikusien zuzeneko onuradun diren pertsonen eta entitate sozial, ekonomiko nahiz politikoen. Plan horrek honako alderdi hauek jasoko ditu:

- Enpresa-irudi bateratua diseinatu eta garatzea.
- Ekintzak eta emaitzak ezagutarazteko aldirako komunikaziorako plan bat taxutzea.
- Proiektua aurkezteko eta sentsibilizatzeko jardunaldi publikoak.
- Euskarri ezberdinetako materialak prestatzea, jokamolde egokiak eta, batik bat, arrakastatsuenak ezagutarazteko balioko dutenak.
- Proiektuaren komunikazio eta ezagutarazpen ekintzetan berdintasun-printzipioa txertatzeko baldintzak espresuki jasoko dira publikitate edo ezagutarazpen ekintzetako edozeinetarako laguntza tekniko kontratatze aldera egiten diren deialdi guztietako baldintza teknikoaren atalean, eta eskaintzetako puntuaziorako irizpideetako beste bat osatuko balute bezala baloratuko dira. Arreta bereziz zainduko da hizkera ez-sexista erabiltzea, irudietan emakumeak agertzea eta haiek modu estereotipatuan ez erabiltzea.

6. galdera

Proiektuaren beharra justifikatzen du Nafarroako Foru Komunitateak bizi duen egoerak, berdintasunik ezarekin eta/edo bazterkeriarekin zerikusia duten arazo identifikatuen inguruan.

Kontuan hartu dira Nafarroaren ezaugarri sozioekonomikoak, zahartzeari, industriari, zerbitzuen sektoreari, nekazaritzaren sektoreari, lan merkatuari, lanbide bat duten biztanleei, langabeziari, enpresen zuzendaritzari eta etorkinei dagokionez, eta horietatik dira proiektuak oinarri gisa hartzen dituenak.

Lan merkatuari dagokionez kontuan hartu diren egoera garrantzitsuenak jarraian zehazturiko hauek dira:

- Enpresa txikiak eta mikroenpresak, gizarte-ekonomiakoak, jabe gisa familiak dituztenak edo berriki eratuak direnak.
- Enpresa txiki eta ertainak, batez ere Nafarroan tradizio luzeak diren industria eta teknologia sektoreetakoak, baldin eta lana nahiz ekoizpena antolatzeke sistema oso zaharkituak eta malgutausun txikikoak badituzte.
- Multinazionalen edo industria talde handien hornitzaile edo osagarri diren enpresak, nagusiki automotzio osagaien edo etxetresna elektrikoaren arloetan dihardutenak. Kasu askotan, berezko produktu edo zerbitzurik gabeko enpresak dira, kudeaketa-maila oso oinarritukoak dituztenak, eta bezero gisa dituzten enpresen mendean egon ohi dira.
- Kudeaketa-sistema berrietara eta Informazioaren eta komunikazioen teknologietara moldatzeko arazoak dituzten 45 urtez gorako pertsona helduen taldea.
- Lan-merkatuan sartzen diren gazteak. Normalki, lan-baldintza kaskarretan eta azpienplegu egoeran sartzen dira, batez ere emakume direnak.
- Kudeaketa-tresna informatikoak erabiltzeko zailtasunak dituzten gizonezko nahiz emakumezko langileak.
- Kudeaketa eta zuzendaritza arloetako eginkizunak arrakastaz betetzeko gaitasuna duten emakumeak, gizon nahiz emakumeentzat malguak diren antolaketa-sistemak ezartzearen abantailaz enpresaburuak ez jabetzeagatik sorturiko bazterkeria bertikala dela-eta.
- Lanaren espezializazioan eta banaketan oinarriturik lana eta ekoizpena antolatzeke sistemak dituzten enpresetako langileak.
- Nafarroan dauden etorkinak, batez ere emakumeak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko irailaren 26an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, oihan-ustiategietarako dirulaguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak oihan-ustiategietarako dirulaguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko maiatzaren 16ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko ekainaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du oihan-ustiategietarako dirulaguntzei buruz, eta idatzizko erantzuna eskatu. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

Balizko patologiaren baten arriskuaren aurrean, Nafarroako Gobernuak oihangintzarako zerbitzuek erabaki dute oihan-lanei dirulaguntzak emateko 2005-2006ko deialditik kanpo uztea Nafarroan sartutako hiru oihan espezie; izan ere, ditugun datuen arabera, badirudi aztertzen ari diren hainbat patogenok espezie horiei kalte egin ahal dietela. Oihan espezie horiek ondokoak dira: pinus radiata, pinus taeda eta pseudotsuga menziessii (Douglas pinua), guztiak Ipar Amerikakoak jatorriz.

Beharrezkoa da alderdi hauek azpimarratzea:

1. Ez da oihan espezie horien erabilera debekatzen; izan ere, ditugun datuak ez dira behar bezain seguruak. Horrenbestez, prebentzio neurriak hartu dira landaketa berriak ez sustatzeko.

2. Egoera hori Nafarroako ipar-mendebaldean soilik gertatzen da, eta kontuan hartu behar da iragankorra dela; hain zuzen, inplikaturiko patogenoak hobeto ezagutu arte eta, halakorik balitz, balizko fokuak deuseztatu arte.

3. Nafarroako beste eremu batzuetan, patogenoak daudela antzematen ez bada, aipatu oihan espezieak erabil daitezke.

4. Beste edozein oihan espeziaren landaketa berriak eta oihangintza lanak sustatzen jarraitzen dugu Nafarroako ipar-mendebaldean; beraz, alternatiba asko daude.

5. Nafarroa osoko Douglas pinuen eta taeda pinuen landaketak mantentzeko dirulaguntzak ematen jarraituko dugu.

Azaldutako guztia dela eta, oihan espezie horiek ez diren beste aukera batzuk ere badira eta hartu den erabaki bakarra arrazoi teknikoengatik hartu da. Erabaki horrek soilik Nafarroako eskualde zehatz bateko hiru oihan espezieri eragiten die, ez ordea egurraren merkatuari edo basoen ustiatetari. Dena den, inplikaturiko patogenoen egoera erreala ezagutu ondoren ezarri ahalko dira tekniko egokitzat jotzen diren berariazko ekintza planak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko ekainaren 1ean

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, Etxalar eta Zugarramurdi lotzen dituen errepidearen mantentze-lanei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Etxalar eta Zugarramurdi lotzen dituen errepidearen mantentze-lanei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko maiatzaren 23ko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko ekainaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du Etxalar eta Zugarramurdi lotzen dituen errepidearen mantentze-lanei buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

a) Etxalar eta Zugarramurdi lotzen dituen errepidea, galdera horretan aipatzen dena, ez dagoela Foru Komunitateko errepideen sarearen barruan.

b) Udal izaera duten bide eta errepideak toki entitateen eskumenekoak dira eta kilometro milaka batzuk egiten dituzte Nafarroan. Horrenbestez, galderan aipatzen den errepidea kategoria horren barruan dago.

c) Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Foru Komunitateko Errepide Sarea osatzen duten 3.800 kilometro errepideren jabegoa, eskumena eta zainketa-lanen ardura ditu, eta horixe da, hain zuzen, bere jarduketa esparrua.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko ekainaren 1ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, hainbat eskualdetan telebista seinaleak hartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak hainbat eskualdetan telebista seinaleak hartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko maiatzaren 16ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Askotariko parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak galdera egin du interferentziak direla medio telebista seinalea ongi hartzeko Bortzirietan eta Leitzaan dituzten arazoei buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Erantzuna, honako galderari batera ematen zaiena:

1.- Zer aukera hautatu zen? Zein dira hautaturiko konponbidea ezartzeko epeak?

2.- Leitzako eskualdean ere arazoak dituzte seinalea hartzeko, gestiorik egin al da hori konpontzeko? Zer neurri hartzeko asmoa dago? Zer epetan?

3.- Ba al dago telebista seinaleak hartzeko arazorik Nafarroako beste eskualdeetan? Zein dira? Zer egin da arazo horiek konpontzeko? Zer epetan?

Irratidifusio eta telebistaren Estatutuak ezarritzen duenez (4/1980 Legea), irratia eta telebista funtsezko zerbitzu publikoak dira eta Estatua da horien titularrak. Kasu honetan TVE1 eta TVE2 hartzeko arazoei buruz ari gara, eta zerbitzu hori ematearen ardura RTVE ente publikoak du. Ente horrek, gero, lurralde jakin batean seinalea heda-

tzeko, kasuko irratidifusioko operatzaileekin kontratatzen du (Abertis/Retevisión konpainiarekin, kasu honetan), harik eta Estatuak telebista operatzaileei ezartzen dizkien gutxieneko hedadura mailak lortu arte.

Seinalearen hedadurak, esan gabe doa, herritarri ematen zaion telebista zerbitzuak ona izateko beharrezkoa duen kalitate maila izanen du.

Abertis/Retevisión konpainiak, Nafarroako Foru Komunitatean, telebista seinalea berrigortzeko dauden 52 telekomunikazio-zentroetatik 12 erabiliz ematen du telebista hedatzeko zerbitzua, eta, horrela, Estatuak ezarritako hedadura-betebeharrak betetzen ditu. Nafarroako Gobernua, gainerako 40 zentroen bidez, Opatel-ek kudeatzen baititu, hedadura handitzeaz arduratzen da, eta, era horretan, gutxi gorabehera Nafarroako herritarren % 99,97k du seinalea.

	Lehen mailakoa	Bigarren mailakoa	Hirugarren mailakoa	Laugarren mailakoa
TVE1	Elomendi - C29	Eratsun - C57	Gorramendi - C36	Lesaka
TVE2	Elomendi - C23	Gorramendi - C39	Lesaka	

Badira beste instalazio batzuk telebista seinaleak berrigortzen dituztenak, hain zuzen ere Gorramendiko eta Lesakako zentroetan TVE1 eta TVE2 kateen seinaleak jasotzeko erabiltzen diren kanal berberetan, eta instalazio horien interferentziak eragiten dituzte arazoak.

Aipatzekoa da leku horrek Frantziarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin egiten duela muga, eta, beraz, espazio irrati-elektrikoa oso bete dagoela. Era berean, badira telebista seinaleak berrigortzen dituzten beste zentro batzuk, alegalak edo legez kanpokoak, eta horiek dira, dirudinez, interferentzien iturri.

Eginikoei dagokienez, zuzendaritza nagusi honek 2003ko azaroaren 21ean Retevisióni jakinarazi zion, hark baitu, esan dugun moduan, TVE1 eta TVE2 hedatzearen ardura interferentziak dituzten zentroetan, TVEren seinalea gaizki jasotzen zutela Arantza, Igantzi, Bera, Lesaka eta Etxalarreko biztanleek eta horrek eragozpenak sortzen zizkiela; era berean, Retevisióni eskatu zitzaion azter zezala arazo hori eta behar ziren neurriak har zitzala herri horietan telebista seinalea kalitate onarekin jaso dezaten.

Bortzirietan, hau da, Arantza, Igantzi, Bera, Lesaka eta Etxalarren, TVE1 eta TVE2 telebista kateen seinaleak Lesakako telekomunikazio zentroaren bidez jasotzen dira; han daude programa horien seinalea hedadura-gune horretara berrigortzen duten ekipoak. Lesakako zentroko telebista zerbitzuaren kudeaketa Abertis/Retevisión konpainiari dagokio, gorago aipatu diren 12 zentro horietako bat baita.

Lesakako telekomunikazio zentrotik emititzen diren TVE1 eta TVE2 kateen seinaleak Gorramendiko telekomunikazio zentrotik jasotzen dira; Gorramendikoak, era berean, TVE2 katearen seinalea Elomendiko telebista-instalazioaren C23tik jasotzen du zuzenean, eta TVE1 katearena Eratsungo instalaziotik, zeinak Elomendiko instalazioaren C29tik jasotzen baitu. Hona taula batean adierazita:

2004ko martxoaren 3an, Retevisiónen erantzuna jaso zen. Adierazi zuten ez zuten erantzunik eman ondotik ikusi zuten interferentziak ez dutela zerikusirik Retevisiónekin eta interferentzia horiek TVE1 eta TVE2 kateen seinaleak Gorramendiko zentroan jasotzeari eragiten diela –Gorramendiko zentroak Lesakako zentroari igortzen dio gero seinalea–. Bi konponbide daude aukeran:

- Interferentzia sortzen duena identifikatu eta instalazio hori ixtea. Industria Ministerioaren Probintziako Buruzagitzaren eginkizuna da hori; interferentziak eragiten dituen instalazioa non dagoen, Nafarroako buruzagitzarena edo Euskal Autonomia Erkidegoko buruzagitzarena.

- Eta lehen mailako seinalea irrati-lotura bidez Gorramendiko zentrori eraman; handik, lurreko hedatze bidez, orain bezala, Lesakara eramanez litzateke.

Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusiak, Retevisióneko ordezkariarekin izaniko bilera batean, jakinarazi zion Leitzako zentroan antzeko arazoa dagoela, eta, ahal izanez gero, Lesakako zentrokoarekin batera konpondu behar litzatekeela.

	Lehen mailakoa	Bigarren mailakoa	Hirugarren mailakoa	Laugarren mailakoa
TVE1	Elomendi	San Migel	Baraibar	Leitza
TVE2	Elomendi	San Migel	Baraibar	Leitza

2004ko ekainaren 24an konponbide proposa-
mena jaso zen Lesakako eta Leitza zentroetara-
ko; irrati-loturako sei bao instalatzea, hain zuzen
ere. Aurrekontu bateratuak 231.490 € (BEZa
barne) egiten du.

Azpiraratzekoa da Nafarroako Gobernuak ez
duela inongo erantzukizunik telebista programa-
zioak Lesakan eta Leitza duen hedaduraren arlo
teknikoari dagokionez (kanalen banaketa, antze-
mandako interferentzien salaketa edo kaltetutako
instalazioetako ekipo eta sistemen mantentze-
lanak), eta Nafarroako Gobernuaren ustez, beraz,
leku horietan zerbitzua ematea dagokien entitate-
ek ordaindu behar dituzte gastuak.

Orain arte, Estatuko administrazioak, RTVE
ente publikoak eta Abertis Telecom-ek ez dute adi-
erazi gastua ordaintzeko prest daudenik. Leitza

eta Lesakako udalek ere, arazoa duten udalak, ez
dute arazoa konpontzeko interesik erakutsi.

Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza
Nagusiak Abertis/Retevisión konpainia premiatu
du arazoa konpon dezan, eginiko planteamendu
teknikoaren bidetik edo beste bide batetik. Bestela,
Industria Ministerioaren Probintziako Buruzagitzan
salaketa jarriko da interferentzia zerk eragiten
duen identifikatu eta kentzeko. Eta hori kaltetutako
edozein pertsona fisikok edo toki entitatek ere egin
dezake.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlametu-
ko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatuta-
koa betetzeko.

Iruñean, 2005eko ekainaren 2an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco
Iribarren Fentanes

Galdera, Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako plan zuzendaria presta- tzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artiku-
luan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel
José Izu Belloso jaunak Su-itzaltze eta Salbamen-
du Zerbitzurako plan zuzendaria prestatzeari
buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Dipu-
tazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari
Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera
2005eko maiatzaren 16ko 46. Nafarroako Parla-
mentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker
Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parla-
mentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera
egin du Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu
Zerbitzurako plan estrategikoa prestatzeko proze-

sua zertan dagoen jakiteko. Hona Lehendakaritza,
Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Aipaturiko galderan adierazitako informazioa
eskatu zenez gero, idazki honi erantsi zaio Su-
itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko partzuergoko
lehendakariak bidali didan idazkia, zeinean eran-
tzuna ematen baitzaie galdera hartan adierazitako
gaiei.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlametu-
ko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurren-
goetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko ekainaren 6an.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbi-
turako Partzuergoko lehendakariak, gogoan iza-
nik egin zaion informazio-eskaera, Izquierda Unida
de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-

taldeak eginiko galderaren ondoriozkoa, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako plan estrategikoari buruzkoa, honako hau adierazten du:

Nafarroako Suhiltzaileen Partzuergoak, KPMG aholkularitza-enpresaren zerbitzuak kontratatuz, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren plan estrategiko baterako proiektua prestatu du.

Parlamentuko galderaren testuak agerian uzten duen bezala, Barne zuzendari nagusi eta Suhiltzaileen Partzuergoko lehendakari denak Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean 2004ko martxoaren 31n eginiko agerraldian, plan estrategiko hori prestatzeko prozesuari buruz informatu zuen, eta, ildo horretatik, baieztatu zuen haren onspena Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko Partzuergoaren zuzendaritza batzordearen eskuetan utziko zela, eta, geroago, Nafarroako Gobernuari igorriko zitzaiola.

Horrela, bada, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoaren lehendakariak planaren edukiaren berri eman zuen, haren zuzendaritza batzordeak 2004ko martxoan eta ekainean egindako bi bileratan.

Halaber, eta ikusirik komeni zela –halaxe adierazten zen plana prestatzeko lanetan ere– Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoak bilakaera bat izatea eredu juridiko berri baterantz –zeinak zerbitzuari malgutasun handiago emanen baitio antolaketaren eta funtzionamenduaren ikuspegietatik–, haren zuzendaritza

kontseiluak, 2004ko ekainaren 1ean eginiko bileran, erabaki zuen bidezkoak ziren jarduketei ekitea Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergo iraungitzeko, halako moldez non Nafarroako Gobernuak Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren zuzeneko kudeaketaren ardura hartuko duen Nafarroako lurralde osoan, Nafarroako Larrialdietako Agentzia deituko zaion erakunde autonomoaren bitartez, Parlamentuari jadanik zenbait aldiz adierazi diodan bezalaxe.

Gaur egun Parlamentuan tramitatzen ari da Nafarroako babes zibilarri eta larrialdietarako laguntzari buruzko Foru Lege proiektua, zeinak zuzenean eragiten baitu su-itzaltze eta salbamendu zerbitzuetan.

Ondorioz, une honetan ez da egokitzat jo plan estrategikoa Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoaren zuzendaritza batzordearen eskuetan uztea hari hasierako onspen formala emateko eta gero Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariari igorri eta hark Nafarroako Gobernuari helarazteko. Hori, hain zuzen, egin nahi da aipaturiko foru legea onetsi ondoren eta Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergo formalki iraungi baino lehen.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2005eko ekainaren 5ean

Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Partzuergoko lehendakaria: Juan Ramón Rábade Iráizoz

Galdera, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenak publikoki eskuratzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenak publikoki eskuratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko maiatzaren 16ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenak publikoki eskuratzeari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1.- Zer urrats egin dira Nafarroako Administrazio Auzitegiak emandako ebazpenak publikoki eskuratu ahal izateko?

2004. urtearen erdialdean, Nafarroako Administrazio Auzitegiko eta Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusiari atxikitako Antolaketa Zerbitzuko arduradunen arteko harremani ekin zitzaion, proiektuaren ezaugarri teknikoak, egin beharreko lanak eta horretarako kostuen hasierako aurreikuspena zehazteko xedez.

2.- Zer aurreikuspen dauka Gobernuak helburu hori lortzeari dagokionez?

Ekitaldi honetan zehar, aurrerapausoak eman dira aipaturiko lanetan; horietako batzuk jadanik

garatzen ari dira, proiektu hau lehenbailehen gauzatu dadin; izan ere, egia da Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentu honek legegintzaldirako dituen helburuetako bat dela.

3.- Aurreikusi al da proiektu horren kostua eta ba al da horretarako dirurik aurrekontuan?

Une honetan, badago lehen balioespen ekonomiko bat, 33.000 euro ingurukoa; dena den, zenbateko horren zati batek jasotzen duena da kontsultak egin ahal izateko bilatzailea egiteko lanen finantzaketarako aurreikuspena, erreferentzia gisa hartuz beste organo batzuetan antzeko tresnak garatzearen kostua; tresna horiek ere aztergai dira, proiektu honetarako erabilgarriak balira ere; izan ere, haiek erabiltzerik balego, arlo honetako kostuek behera egingen lukete. Gastuaren gainera, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren berarizko orri presentziala sortzekoa da; horretarako aurreikuspena egiten da orri hauetarako plangintza-eredu orokorrari jarraikiz, eta pentsatzekoa da azkenean baxuagoa izanen dela, proiektuaren gauzatzean aurrera egin ahala.

Departamentuko gastu-aurrekontu indardunean, berariaz proiektu horri aurre egin ahal izateko dirua jarri da, eta, proiektuaren garapenean aurrera egin ahala, egoki diren aurrekontu-aldaketak egiteko asmoa dago.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko ekainaren 6an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, Milagron ikastetxe bat eraikitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Milagron ikastetxe bat eraikitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko maiatzaren 23ko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko ekainaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Milagron ikastetxe publiko berriari buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak Milagron haur eta lehen hezkuntzako

ikastetxe publiko bat, bi lerrokoa, eraikitze asmoa du, egutegi honi jarraikiz:

2006. urtean: proiektua adjudikatzea eta urteko hirugarren hiruhilekoan eraikuntza-lanak hastea, "Eraikin berriak egitea eta eraikitze-lanak" izeneko kontu-sailaren kargura, zeinak 450.000 euroko zenbatekoa baitauka.

2007. urtean: eraikina egitea, "Eraikin berriak egitea eta eraikitze-lanak" izeneko kontu-sailaren kargura, zeinak 1.123.472 euroko zenbatekoa baitauka.

2008. urtean: lanak bigarren hiruhilekoan, amaitzea; zenbatekoa: 1.984.720 euro.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko ekainaren 8an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Antox Elkarteari fakturak ordaintzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak Antox Elkarteari fakturak ordaintzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko maiatzaren 23ko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko ekainaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Askotariko parlamentu-taldeari atxikitako José Luis Etxegarai Andueza jaunak galdera egin du Antox elkarteari fakturak ordaintzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Komunitate terapeutikoetan 2004an eginiko egonaldiei dagozkien fakturen ordainketa atzeratu

egin zen, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan izaniko berrantolamenduaren ondorioz.

Zehazki, aldaketa izan zen Laguntza Anbulatorioaren eta Ospitalez Kanpokoaren Zuzendaritza sortzea, non adimen osasuneko eta laguntza anbulatorioko dirulaguntzak sartu baitziren, beste hauen dirulaguntzekin batera: Odol Bankua, Prestazio eta Itunen Zerbitzua eta Ikerketa Biomedikorako Zentroa.

Berrantolamendu administratiboa, beraz, urteko lehenbiziko hiruhilekoan gauzatu zen, eta horrek eragin zuen fakturak atzerapenez ordaintzea.

2.- 2005eko lehenbiziko hiruhilekoari dagozkion fakturak 2005eko maiatzaren 5ean tramitatu dira, eta hil horren 12an ordaindu dira.

Faktura horien ordainketak izaniko atzerapena hitzarmen berriaren negoziaketak eragin du, uste baino gehiago luzatu baita; izan ere, aurreko hit-

zarmenaren indarraldia –2000ko uztailaren 6an onetsi zen– 2004ko abenduaren 31n amaitu zen.

Halere, zerbitzua 2005eko urtarrilaren 1etik ematen ari zenez, egoki ematen ari ere, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak maiatzaren 2an emaniko 833/2005 Ebazpenaren bidez, kontratuan ezohiko aldaketa egin eta kontratua maiatzaren 31n amaituko zela ezarri zuen, horrela zerbitzu horien ordainketa lehenbailehen egin zedin, beste hitzarmen bat tramitatu bitartean.

3.- Osasun Departamentuak prozedura administratiboak arinduko ditu ordainketak lehenbailehen egin daitezten, kontrolaren eta legezketasunaren printzipioak errespetatuz. Hitzarmena sinatu ondotik, ordainketak egoki eginen dira, denbora tarte luzea pasatzen utzi gabe, bai aurreko hurrengo urteetan.

4.- Ordainketak lehenbailehen eginen dira, elkarrearen finantza-egoera kolokan ez jartzearen.

5.- Proposatutako hitzarmena aurreko urteetako antzekoa da.

6.- Adierazi denez, ez da aurreikusitako egungo eremuan aldaketa garrantzitsurik egitea.

7.- Ordainketa guztiak irizpide berekin egiten dira eta, beraz, elkarre guztiek dute aipatutako egoeraren antzekoa; aipatu dugun Antox elkarreaz gain, hori Ibarre-Multzoa eta Gizakia Helburu elkarreaz.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko ekainaren 8an.

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, lehen osasun laguntzako eta osasun laguntza espezializatuko farmazia gastuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak lehen osasun laguntzako eta osasun laguntza espezializatuko farmazia gastuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko maiatzaren 23ko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko ekainaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du oinarritzko laguntzako eta laguntza espezializatuko farmaziarloko gastuari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- 2003. eta 2004. urteetan eginiko farmazia gastua, oinarritzko osasun laguntzan eta osasun laguntza espezializatuan gastatu dena bereizirik.

Farmazia prestazioaren gastua honakoa izan da:

	2003ko gastua	2004ko gastua
Osasun laguntza espezializatua	17.227.866	18.718.446
Oinarritzko osasun laguntza	102.433.138	108.333.865
Guztira	119.661.005	127.052.312

2.- Ospitale publiko bakoitzari buruzko informazioa, farmazia gastuari dagokionez. Generikoak erabiltzeko programa kontratuek ospitaleetan izandako erantzuna.

Ospitaleetako farmazia gastua hauxe izan da:

	2003ko gastua	2004ko gastua
Nafarroako Ospitalea	13.816.423	15.860.362
Bideko Ama Birjina Ospitalea	7.586.510	8.798.368
Ubarmin Klinika	217.479	295.402
Reina Sofía Ospitalea (*)	3.537.916	4.220.488
García Orcoyen Ospitalea (*)	783.949	898.033

(*) Osasun barrutiko osasun etxeetan medikamentuetan eginiko gastua barne.

Laguntza espezializatuko generikoen adierazleak (medikamentu generikoen ehunekoa/agindutako medikamentuak, guztira) gora egin du 2003ko % 6,37tik 2004ko % 8,79ra. 2004an agindu dira 33.297 generiko-ontzi gehiago 2003an baino, eta horrek esan nahi du urte batetik besterako gorakada % 40koa izan dela.

3.- Zer egin du Osasun Departamentuak 2004. urtean eta aurrean, farmazia eta parafarmazia zerbitzurik ez duten zentro soziosanitarioetan zerbitzu hori ezartzeko?

2005ean aurrekontu-lerro bat sortu da Osasun bidean, farmazia zerbitzua behar duten zahar etxeetan beharrezkoak diren aldaketetarako dirulaguntzak emateko. 2005ean zehar, lerro hori erabili da Erruki Etxeko farmazia zerbitzurako beharrez-

koak ziren birmoldaketak finantzatzeko; zerbitzu hori 2005eko apirilaren 18an jarri zen abian.

4.- Zer asmo dauzka departamentuak arlo horretan?

Berritik sortzen diren zentro soziosanitario guztietan, baldin eta lagunduentzako ehun ohe baino gehiago badituzte, farmazia zerbitzua irekiko da, eta modua emanen da irekita dauden zentroetako- ren batean farmazia zerbitzua irekitzeko, horretarako beharrezkoak diren birmoldaketa-lanetarako dirulaguntzak emanaz.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko ekainaren 8an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Otik 3 urtera bitarteko haurren ikasgelak finantzatzeko moduluari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak Otik 3 urtera bitarteko haurren ikasgelak finantzatzeko moduluari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko maiatzaren 23ko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko ekainaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal jaunak galdera egin du haurrentzako udal titulartasuneko ikastetxeen kudeaketa finantzatzeko moduluei buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Ikastetxeen kudeaketa eta ekipamendua finantzatzeko moduluak 41/2005 Foru Aginduaren I. eta II. eranskinean daude ezarrita. Foru agindu horren bidez, Otik 3 urtera bitarteko haurrentzako udal titulartasuneko ikastetxeen kudeaketa eta ekipamendua finantzatzeko Hezkuntza Departamentua-

ren eta toki entitateen artean egingen diren hitzarmenen oinarriak ezartzen dira.

Kudeaketa moduluak.

1. Kudeaketa moduluak kontzeptu hauek jasotzen ditu:

- Hezkuntzako langileen gastuak: soldatak, gizarte segurantzaren eta ordezkapenak.

- Zerbitzuetako langileen gastuak: soldatak, gizarte segurantzaren eta ordezkapenak.

- Funtzionamendu gastuak: mantentze-lanak, ura, argia, berokuntza, telefonoa; garbiketako materiala, osasuneko eta bulegoko; material didaktiko suntsikorra eta kudeaketa gastuak.

- Eraikina berritzeko inbertsioetarako, altzarietarako eta material didaktiko inbertsioetarako gastuak.

2. Moduluetan jasotako kontzeptu bakoitzaren zenbatekoa zehazteko kontuan hartutako elementuak.

Moduluak 2000. urtean finkatu ziren, urte horretako maiatzean PSNk eta Nafarroako Gobernuak haur hezkuntzako lehenengo zikloa jartzeko oinarrien akordioa sinatu ondoren. Ordutik sartu diren kontzeptuak urtero gaurkotu dira ekonomiko-

ki, Nafarroako Foru Komunitateko KPIren igoera aplikatuz. Honako erreferente hauek hartu ziren kontuan:

- Langileen soldatak kalkulatzeko, 2000. urteko "Haurrentzako Laguntza eta Hezkuntza Ikastetxe-etako estatuko lan hitzarmena" hartu zen erreferentziatzat, eta hezitzaileei % 41 igo zitzaizen soldata eta % 18 zuzendariari eta garbitzaileei. Gaur egun, moduluetan sartutako soldatek, 2005eko IX. Hitzarmenekoekin alderatu –2005eko abenduaren 31ra arte egon zen indarrean– eta ikus daiteke hezitzaileen kasuan %48ko igoera izan dutela, eta zuzendarien eta garbitzaileen kasuan % 37koa.

- Funtzionamendu-gastuak: unitateka kalkulatu ziren, eta oinarri hartu zena izan zen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren zentrok batez beste duten gastua, jantokiko gastua kanpoan utzita.

2003ko ekitalditik aurrera, gastu horiek bi kontzeptutan banatu ziren: funtzionamendu gastuak (guztiaren $\frac{3}{4}$, gutxi gorabehera) eta eraikina bertizko inbertsioetarakoak: eraikinaren konponketa txikiak, altzariak eta material didaktiko inbentariagarria (guztiaren $\frac{1}{4}$, gutxi gorabehera). Gaur egun, gastu horiek, unitateko, 4.993,50 euro egiten dute funtzionamendu gastuei dagokienez, eta 1595,01 euro, inbertsioei dagokienez.

3. Moduluetan aldaketak eragiten dituzten faktoreak:

a.- Unitateen kopurua. Zenbat unitate diren, moduluak aldatu egiten da.

Unitate bakoitzak, batetik, hezitzaile baten gastua dakar, hau da, urtean 10.964,85 euro eta 18.529,25 euro bitarteko soldata gordina, hezitzaileak C moduluko ikastetxean (lanaldi erdia) lan egiten duen edo A moduluko ikastetxean (lanaldi osoa) lan egiten duen; bestetik, unitate bakoitzak 4.993,50 euroko funtzionamendu-gastuak eragiten ditu eta 1.595,01 euroko inbertsio-gastuak.

Ikastetxe guztietan dago zuzendari bat, unitate kopurua gorabehera, eta horren urteko soldata gordina 15.436,98 euro eta 26.086,72 euro bitartekoa da, C edo A moduluko ikastetxeetan lan egiten duen.

Zerbitzuetako langile kopurua, unitate kopurua gora egin duen heinean, handitzen joan da, hala baitago jasota otsailaren 28ko 41/2005 Foru Aginduaren I. eranskinean –foru agindu horren bidez, Otik 3 urtera bitarteko haurrentzako udal titulartasuneko ikastetxeen kudeaketa eta ekipamendua finantzatzeko Hezkuntza Departamentuaren eta toki entitateen artean eginen diren hitzarmenen oinarriak ezartzen dira–.

b- Ordu-tegi mota. Oinarrizko modulua ordutegi osokoa jotzen badugu, ordutegi murriztuko modulua hezkuntzako langileen ordutegiaren eta soldaten % 91 egiten du eta modulu guztiaren % 93. Lanaldi erdiko ordutegiaren modulua ordutegiaren eta hezkuntzako langileen % 59 egiten du eta modulu guztiaren % 71. Funtzionamendu-, inbertsio- eta garbitzaile-gastuak ez dira aldatzen ordutegi motaren arabera.

Modulu konbinatua (ikastetxeek kasu honetan dituzten unitateak dira bai ordutegi osoko unitateak –7 ordukoak–, bai lanaldi erdiko unitateak –4 ordukoak–) hiru azpimoduluen batuketa oinarri hartuz kalkulatzeko da: lehenbizikoak ordutegi osoko zuzendaritzaren eta hezitzaileen gastuak hartzen ditu, bigarrenak lanaldi erdiko hezitzaileen gastuak hartzen ditu eta hirugarrenak zerbitzuetako langileen gastuak, funtzionamendu-gastuak eta inbertsio-gastuak.

Udal titulartasuneko ikastetxeen kudeaketarako udalek 2003/2004 eta 2004/2005 ikasturteetan jasotako dirulaguntzak eta 2005/2006 ikasturterako aurreikuspenak, non sinatu beharreko hitzarmenak sartzen baitira, honakoak dira:

Toki entitateei kudeaketarako eta ekipamendurako emaniko dirulaguntzak 03/04 eta 04/05 ikasturteetan. 05/06 ikasturterako aurreikuspena.

Toki entitateei kudeaketarako eta ekipamendurako emaniko dirulaguntzak 03/04 eta 04/05 ikasturteetan. 05/06 ikasturterako aurreikusitako dirulaguntza						
	2003/2004 ikasturteko dirulaguntza		2004/2005 ikasturteko dirulaguntza		2005/2006 ikasturterako aurreikusitako dirulaguntza	
	Kudeaketa	Ekipamendua	Kudeaketa	Ekipamendua	Kudeaketa	Ekipamendua
Ablitas	59,976.85		59,332.48		69,541.17	
Agoitz	47,872.13	62,587.78	75,189.93		87,110.79	
Allo			26,683.56	18,927.60	46,124.44	18,927.60
Altsasu	72,028.06		67,785.97		83,397.26	
Antsoain	142,517.23		164,694.44		183,884.83	
Arangurengo ibarra	109,686.83		151,482.31	49,041.40	170,205.27	49,041.40
Atarrabia	484,385.69		502,981.05		556,729.57	
Aurizberri			10,000.00	18,927.60	33,000.00	18,927.60
Azagra	43,275.27		59,928.01		68,145.04	
Azkoién	100,913.33		90,565.25		110,450.22	
Barañain	245,471.34		354,766.71		290,870.16	
Baztan	65,471.86	4,501.58	77,316.28		89,459.05	
Bera	53,030.81	59,503.50	55,594.40		62,311.82	
Berriozar	201,212.82	22,507.90	226,164.73		242,317.07	
Betelu	54,663.87	10,573.50	45,926.83		53,399.29	
Buñuel	64,975.19		54,082.71		60,546.50	
Cabanillas	49,621.07		33,636.52	4,419.75	38,212.04	4,419.75
Cascante	57,553.89		56,407.71		73,349.70	
Castejón	62,182.59	4,501.58	73,210.03		89,665.44	
Cintruénigo	144,395.80	9,003.16	153,007.36		188,676.65	
Cortes	66,869.21		62,380.80	8,000.00	74,807.85	
Erronkari ibarra			20,326.17	4,627.62	26,321.99	
Fontellas	25,727.44	31,254.08	61,590.01	5,570.43	71,536.93	5,570.43
Funes	74,670.88		74,709.94		83,363.62	
Gares	68,594.71	9,003.16	73,050.39		82,805.31	
Gorraitz			54,412.36	47,138.38	109,731.59	47,138.38
Iruña	1,279,278.25		1,464,403.55	73,744.01	1,654,368.55	
Irunberri	54,723.17		54,218.64		60,409.22	
Larraga	54,057.73		44,977.33		52,279.40	
Leitza	32,596.06	9,000.00	55,783.87		62,911.24	
Lekunberri			0.00		119,000.00	16,899.48
Lizarra		14,012.38	89,427.96	42,847.93	108,767.37	42,847.93
Lodosa	55,918.13		82,875.55		101,751.44	
Oltza Zendea			47,761.21	18,126.07	53,588.08	16,899.48
Orkoien	112,936.52	9,003.16	114,085.58		126,969.28	
Ribaforada			58,949.05	58,765.49	66,706.04	
San Adrián	293,081.87		306,740.08		351,253.82	
Sartaguda	21,663.02	24,157.05	34,875.74		40,199.43	
Sesma	13,136.70	4,858.02	24,438.95		27,211.48	
Tafalla			164,236.32	101,946.90	195,931.34	36,550.62
Tutera	542,720.31		619,919.12	65,617.87	681,084.85	65,617.87
Uharte	56,880.74		121,733.87	56,680.78	142,804.39	56,680.78
Ultzama	69,308.91	48,587.52	71,275.89		73,034.03	
Valtierra	53,597.99	4,501.58	36,831.26		43,872.23	
Viana	68,755.16	4,501.58	68,309.23		77,671.84	
Villafranca	66,008.96	8,850.00	91,245.29	6,206.15	103,951.84	
Zangoza	74,630.96	92,148.94	96,924.52		119,004.99	
Zarrakaztelu	10,057.25	49,915.89	73,314.71		86,656.47	
Zizur Nagusia	98,990.41		105,069.89		117,914.98	
GUZTIRA	5,253,439.01	482,972.36	6,512,623.56	580,587.98	7,513,305.91	379,521.32

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko ekainaren 8an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, eszedentzia dela-eta eskatu diren laguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak eszedentzia dela-eta eskatu diren laguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko ekainaren 7ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko ekainaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du laneko eszedentzia dela eta eskatu diren laguntzei buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1. Zenbat pertsonak eskatu zituzten dirulaguntza horiek 2003. eta 2004. urteetan?

2003. urtean laguntza horietarako 616 eskaera jaso ziren, eta, 2004an, 594 eskaera.

2. Onartutako zenbat eskaera daude ordaintzeke? Noiztik daude ordaintzetan egin gabe? Zergatik ez dira dirulaguntza horiek ordaindu? Noiz ordainduko dira?

Galdera horiei dagokienez, lehenik eta behin adierazi behar da 2002an 542 espediente, beste hainbeste eskaerari zegozkienak, ebatzi zirela (horrek esan nahi du onetsi eta ordaindu egin zirela). Laguntza horiek konpromisoa sortzen dute beren indarraldian zehar; horrek esan nahi du ezen, urtero, aurre egiten zaiela aurreko urtetik iragaten diren konpromisoei gehi onetsiriko eskaera berriei. 2003an 579 espediente ebatzi ziren (eta, beraz, onetsi eta ordaindu ere egin ziren), 2004an, 518 espediente, eta 2005ean, maiatzaren 31rako, 218 eskaera zeuden onetsita eta ordainduta.

2002, 2003 eta 2004 urteetako eskaerarik ez dago ordaintzeke, eta soilik 222 eskaera geratzen dira balioetsi, ebatzi eta ordaintzeke; eskaera hori-

ek 2005eko otsailetik maiatzetako tartean aurkezturiko espedientei dagozkie. Beraz, ezin esan daiteke haien tramitazioan atzerapen muntadunik dagoenik, nahiz eta, familia eta lan bizitza bateragarri egiteko laguntzekin gertatzen den bezala, 2005ean eszedentziari loturiko laguntzen eskaerak gorakada nabarmena izaten ari diren, % 51,13koa, aurreikusitakoa baino handiagoa. Gaur den egunean ordainduta dauden eskaerak dira 2004an egun hauexetan bertan ordaindutakoak adina, gutxi gorabehera.

Ordaintzeke dauden laguntzak ordaintzeko, prozedura bikoitz bat erabiliko da: lehenik eta behin, bidegabeki hitzarturiko kreditua des-hitzartuz, zenbait espedientetan laguntzarako eskubidea bertan behera gelditu izateagatik. Prozesu horretarako denbora behar da, konplexua baita, eta azken bi hilabeteetan bide hori jorratzen ari da. Bigarrenik, Parlamentuari kreditu-gehikuntza bat eskatuz.

Kontuan izanik ordaintzeke dagoen guztizko kopurua 571.264 eurokoa dela, eta aurreikuspen arabera % 10 inguru (57.000 €) des-hitzartzeen bidez ordainduko dela, irailerako aurreikusitako kreditu-gehikuntzarako eskaera onetsi ondoren ordainduko da, horrela ahalik eta gehien aprobetxatzeko aurrekontuen betetze-mailaren arabera eskueran dauden saldo guztiak.

3. Zenbatekoa da dirulaguntza horien kostua eta zenbatekoa 2002. eta 2003. urteetan ordaindu gabe utzi dena?

2002. urtetik 2005eko maiatzaren 31 bitartean Nafarroako Gobernuak guztira 5.864.916 € ordaindu ditu, onetsitako espediente guztietarako.

Horrez gain, berriro ere esan behar da ez dagoela 2002. eta 2003. urteetako ezin kopuru ordaintzeke.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko ekainaren 7an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, tokiko osasun kontsultategiak egokitzeko dirulaguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak tokiko osasun kontsultategiak egokitzeko dirulaguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko maiatzaren 23ko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko ekainaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du herrietako kontsultategi medikoak eraikitzeke eta egokitzeko dirulaguntzen gaineko 791/2005 Ebazpenari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Aipaturiko dirulaguntzak adjudikatzeko kontuan izan diren irizpideak dira dirulaguntza-deialdi horren oinarrietan ezarritakoak (deialdi hori organo berak onetsi zuen, azaroaren 19ko 1755/2004 Ebazpenaren bitartez).

1.- Oinarri arautzaile horiek diotenez, balorazio batzordeak honako irizpide hauen arabera baloratzen ditu aurkezturiko eskaerak:

– Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzaren lehentasunak kontsultategien, aurrekontuetan

dagoen diruaren eta eskabide-kopuruaren ikuspegietatik.

– Aurreproiektua, txosten tekniko baloratua eta/edo aurkeztutako aurrekontua eta kontsultategi medikoan osasun laguntzarako premia errealak batera egokitzen diren.

– Kontsultategi medikoan osasun laguntza jasoko duten biztanleak.

– Lokalen kokapena eta sarrera-irteerarako erraztasuna.

– Aurkeztutako aurrekontuaren eta egin beharreko obraren arteko egokitasuna.

2.- Baiezko erantzunik jaso ez duen premiazko eskaerarik ez da izan.

3.- Balorazio batzordeak ezarritako lehentasunak bete egin dira. Gainerako beharizanak asetzeko, 2006. urterako onetsiko den dirulaguntza-deialdira jo beharko da.

4.- Dirulaguntzak emateko, aipaturiko balorazio batzordeak ezarritako lehentasunak aintzat hartuz jokatu da, eta beraz, ez zaie dirulaguntzarik eman baiezko erantzuna jaso duten beste eskaera batzuek baino lehentasun apalagoa zuten kontsultategi batzuei.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko ekainaren 8an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 42,35 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,10 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,27 »	